

## **EUSKO TRENBIDEAK / FERROCARRILES VASCOS, S.A.**

### **Sozietatearen izena**

Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. (E.T. /FF.VV.)

### **IFK**

A48136550

### **Izaera**

Sozietate publikoa.

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Partida murriztaileak dituen balioespena.

### **Sorrera**

Sozietatea 1982ko ekainaren 25ean emandako eskritura publiko bidez eratu zen. Honen bidez onartu zen sorrera: [Jaurlaritzaren 105/1982 DEKRETUA, 1982ko maiatzaren 24koa, "Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A." sozietate publikoa sortzea eta haren estatutuak onartzea erabakitzen duena.](#)

### **Sail-atxikipena**

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

### **JESN**

4910 Bidaiarien hiriarteko trenbide-garraioa.

### **Helburu soziala**

Sozietatearen helburua trenbidez garraioak egiteko zerbitzuak ematea da, bidaiariei zein salgaiei dagokienez; eta horren barruan izango dira: gurpildun materiala mantentzea, eta trenbideko garraioari lorturik diren edo haren osagarriak diren jarduerak eta zerbitzuak, bereziki [abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaz](#) eta [abenduaaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz](#) Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako lineetakoak, hala nola egoki dakizkiokeen beste guztiak.

Era berean, Gobernu Kontseiluak 2006an onartutako estatutuen aldaketa partzialari jarraikiz, kontuan hartuta [67/2006 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, "Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A." Sozietate Publikoa sortzeko eta haren estatutuak onartzeko Dekretua hirugarrenez aldatzeko dena](#), Sozietateak mota guztietako garraio-zerbitzuak egin ahal izango ditu trenbidez, interes orokorreko trenbide-sarean dauden lineetan.

Jarduera nagusiaren osagarri, jarduera hauek ere sartzen dira sozietatearen helburuan:

- Bidaiariei zein salgaiei dagokienez, errepide, funikular, tranbia edo kablez garraio-zerbitzuak ematea, eta horren barruan izango dira: gurpildun materiala mantentzea, eta aipatu garraioari loturik diren edo haren osagarriak diren jarduerak eta zerbitzuak.
- Aurreko idatz-zatietan aipatutakoez besteko baliabideen bitartez, bidaiariei zein salgaiei dagokienez, garraio-zerbitzuak ematea.

